


IKUSPEGI BAROMETROA, 2008

Elkarbizitza, hautemandako integrazioa eta immigrazio-politika

Oraingo begirada honetan datu berriak ematen ditugu ezagutzera, Ikuspegi 2008ko ekainean aurkeztutako bigarren Barometroaren eskutik. 22. begiradan (2008ko ekaina), kultura-aniztasunaren kudeaketari buruzko datuak, eta euskal identitatean eta ekonomian izandako eraginak aztertzen genituen; orainoan, berriz, atzerriko etorkinekiko elkarbizitza, haiekiko enpatia, hautemandako integrazio-maila, eta EAEn zer immigrazio-politika ezartzea komeni litzatekeen ditugu aztergai.

1. Elkarbizitza


Zure ustez, EAEn, bertako eta atzerriko biztanleen arteko harremanek hobera egin dute azken urtean, okerrera egin dute, ala berdina daude?




- Oro har, EAEko biztanleek uste dute atzeritarrekiko harremanetan ez dela aldaketarik izan (%66,5).
- Hala ere, nolabaiteko desberdintasuna sumatu dutenen artean, gehiago dira harremanek okerrera egin dutela adierazi dutenak (%14,6), eta gutxiago dira hobera egin dutela diotenak (%11,7).

Esaten badizut emakume etorkin baten irudian pentsatzeko, zer nazionalitate, herrialde edo jatorri datorkizu burura?

- EAEko biztanleei emakume etorkinari buruzko irudiaz galdetzen diogunean, jatorri hegoamerikarra duen emakumea irudikatzen dute gehienbat, errealitateko datuekin bat datorren irudia, alegia.




Nola ikusten dituzu atzeritarrak, bertakoein alderatuta?




- Oro har, EAEko biztanleek iritzi ona dute atzerriko etorkinei buruz; baina bada salbuespen bat: etorkinak bertakoak baino matxistagoak direla uste dute.
- Hala ere, EAEko biztanleek bertakoei buruz duten iritzia atzerriko etorkinei buruz dutena baino zertxobait hobea da.

Ondo ala gaizki iruditzen zaizu atzerritarrek...?



- EAEko biztanleei ondo iruditzen zaie atzerriko etorkinek beren dendak eta jatetxe exotikoak irekitzea, eta ondo ikusten dute, halaber, beraiantzako janari-denda bereziak izatea.
- Ez zaie gaizki iruditzen etorkinen artean beraien hizkuntzan hitz egitea edota jaioterriko janzkera erabiltzea.
- EAEko biztanleek, ordea, ez dute atsegin atzerritarrek beren elizak eraikitzea, ez seme-alabek hezteko beraien ikastetxeak izatea, ez eta plaza nahiz espazio publikoak hartzea ere.

Kezkaturik al zaude atzerriko pertsona gehiagoren etorrerak zuregan edo zure familiarengan eragin ditzakeen kalteengatik?





- EAEko biztanleak bereziki kezkatuta daude atzerriko pertsonen etorrerak haien segurtasun pertsonal eta familiarrean eragin ditzakeen kalteengatik.
- EAEko hainbat biztanlek uste dute, gainera, atzerritar gehiago etortzen badira, horrek kalteak ekarriko dizkigula gure ongizatean: hamarretik hiruzpalauk uste dute zailagoa izango dela gizarte-laguntzak lortzea, ospitaletan gehiago itxaron beharko dugula, etxebizitza eta lana aurkitzen gehiago kostako zaigula, eta soldata urriagoak izango ditugula.
- Erantzunen arabera, atzerritarren etorrerak ez du gure irakaskuntzaren kalitatea arriskuan jartzen, ez eta gure kultura-identitatea ere.

2. Enpatia eta hautemandako integrazioa

Esadazu, arren, zenbat atsegin dituzun honako herrialde edo eskualde hauetako pertsonak (0-10 eskalan; 0 = ez ditut atsegin, 10 = oso atsegin ditut).

Etorkin-taldeak aipatzea zaila bada ere, zure iritziz, zenbateraino integratu dira honako herrialde edo eskualde hauetatik etorritako pertsonak (0-10 eskalan; 0 = ez dira batere integratu, 10 = guztiz integratu dira).




EAEko biztanleek adierazten dutenaren arabera, etorkinen integrazio-maila haienganako begikotasunarekin erlaziozuzen dago:

- Gertutasun kultural, politiko eta sozial handiagoa duten kolektiboak integratuago daudela hautematen dute, eta atseginago dituzte.
- Magrebtarren, Ekialdeko Europako eta asiarren kultura eta gizartea desberdinoak izanik eta/edo haiei buruzko aurreiritzi gehiago dagoenez, handik etorritakoak ez dituzte hain integratuta ikusten, eta ez dituzte hainbeste atsegin.


3. Harremanak

Bizitzeko lekua aukeratu beharko bazenu, hiru aukera hauetatik zein hartuko zenuke?

- EAEko biztanleek nahiago dute norberaren talde etnikoko biztanleak dituen auzo batean bizi.




Hemen, EAEn, bizi zarela, zenbat denbora ematen duzu aisialdian beste herrialde batzuetako pertsonekin (ez euskaldun ez espainiar ez direnekin)?



- Hirutik batek adierazi du ez duela inolako harremanik atzerriko etorritako pertsonekin. EAEko biztanle gehienek noizbehinkako harremanak dituzte atzerriko etorkinekin.


4. Immigrazio-politika

Txartel honek dioena irakurri, eta esadazu zenbateraino zauden ados hor ageri diren esaldiekin.



- Euskal gizartea tinko ageri da krisialdi ekonomikoaren aurrean: gehienek ez zaie iruditzen lanik gabe geratu diren langile etorkinak hemendik bidali behar direnik.
- Lege-hausteei dagokienez, ordea, euskal gizartea zorrotzagoa da: gehienek uste dute delituren bat egiten duten etorkinak kanpora bidali behar direla.


Zure iritziz, zer egin beharko luke Gobernuak etorkin "irregularrekin"?



- Oro har, euskal gizarteak lan-egoera eta langile atzerritarren onarpena uztartzen ditu, eta lanean diharduten pertsonen egoera erregularizatzearen aldekoa da; lanean ari direnei hemen bizitzeko baimena ematearen aldekoa, alegia.
- Gutxiengo batek soilik ditu jarrera gogorrak: %10,4k adierazi du egoera irregularrean dauden etorkin guztiak bidali behar direla.

Eta, asilo politikoa eskatzen duten etorkinen kasuan, zer egin behar dela uste duzu?

- Oro har, asilo politikoa eskatzen dutenei babesa ematearen alde ageri da euskal gizartea, batez ere jazarpena jasaten duten atzerritarrei. Hala ere, zer egin behar den ez dakitela adierazten duten pertsonen multzoa handia da.
- Gutxiengo batek soilik adierazi du ez zaiela inoiz babesik eman behar asilo politikoa eskatzen duten atzerritarrei.




5. Zerbitzuak izateko aukera

Zure ustez, EAEn bizi diren etorkinek doan izan behar al dituzte zerbitzu hauek:...

Etorkinek eskura eta doan izan behar dituzten zerbitzuei dagokienez, EAeko biztanleek nahiko jarrera murriztailea dute:

- Hamarretik hiruzpalauk soilik uste dute zerbitzu horiek doakoak izan behar dutela atzerriko etorkinentzat.
- EAeko biztanle gehienek iritziz, egoera administratibo erregularran daudenei soilik eskaini behar zaizkie zerbitzu horiek.
- Multzo esanguratsu batek (%20,8) ez du uste etorkin atzerritarrek beren ama hizkuntza ikasteko eskoletara joateko aukera izan behar dutenik.



Ondorioak

- Datuak adierazten digute EAeko biztanleek jarrera anbiguoa dutela atzerriko immigrazioarekiko: zenbait alderditan oso jokabide irekiak ageri dituzte, eta beste batzuetan, aldiz, jarrera itxiagoak nabarmendu dira.
- Immigrazio- politikak eta lan-egoera uztartzeko jarrerari eusten dio euskal gizarteak (lanean diharduten etorkinei erregularizatzeko aukera hobek emateko jarrerari, alegia). Beste ikerketa batzuek joera hori adierazi dute, eta oraingoan bildutako datuak ere ildo beretik doaz.
- Kulturarteko elkarbizitza-eredurik ez da ageri. EAeko biztanleek asimilazio-eredu baten aldeko joera dute, atzerriko etorkinei eskatzen baitiete ahalegin handiena egiteko, integrazioa errazteko bidean.
- Atzerritarren etorrerak sortzen dituen kezka eta errezelo gehienak euskal gizartearen ongizate-mailari eusteko gaitasunari buruzkoak dira.
- EAeko biztanleen kezkak pizten dituen beste auzi bat herri-segurtasuna da; izan ere, estereotipoei jarriki, atzerriko immigrazioak herri-segurtasunean eragin handia duela uste dute.



EAeko immigrazioaren inguruko informazio gehiagorako kontsulta ezazu gure web orria: www.ikuspegi.org

Behatokiaren beste zerbitzu batzuk ere zure esku daude:
 - **Dokumentazio zentrua:** kontsulta zerbitzua eta liburutegi maila-gua eskeintzen ditu.
 - **Informazio estatistikoa.**

Gurekin harremanetan jartzeko:

Tlf.: 94 601 82 75
 Fax: 94 402 35 40
 e-mail: info@ikuspegi.org

Postaz eta pertsonalki helbide honetan aurki gaitzaitez:
 Alameda Mazarredo 39, 4.C, 48009 Bilbo - Bizkaia